

# 2021 urteko emaitzak

2022ko otsailak 25



Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontrolatik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritzia dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

## Aurkibidea

### 1. Laburpen exekutiboa

2. Finantza-informazioa

3. Burtsako informazioa


4. Jasangarritasuna | ESG

5. Aurreikuspenak

6. Eranskinak

# 1. Laburpen exekutiboa

➤ Kudeaketa-ratio guztiek susperraldi handia izan dute, baina negozioen testuingurua pandemia ondoren erabat normalizatzeko dago



<sup>1</sup> Kontratazioa/Salmentak kontuan hartuta neurtutako Book to Bill-a

<sup>2</sup> Ehuneko puntu

<sup>3</sup> Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia.

# 1. Laburpen exekutiboa

## > Urtean zehar lortutako mugarri nagusiak



Merkatu geografiko estrategikoetan Taldeak duen **posizionamendua indartu** da: **Frantzia eta Alemanian**

- ✓ Organikoki: urtean zehar garrantzi handia izan duten kontratazioak
- ✓ Ez-organikoki: Alstomi aktibo esanguratsuak erosteko akordioa 2021eko azaroan



**Solarisen lidergoa** zero isurpeneko hiriko autobusen Europako merkatuan




**Jasangarritasun** arloko hobekuntza esanguratsuak

**Karguak banatu dira** presidentearen eta kontseilari delegatuaren artean



Aurrerapen adierazgarriak FCH2RAIL proiektuan EBko hainbat herrialdetan **hidrogeno bidezko tren-prototipo** bat garatzeko, fabrikatzeko eta balioztatzeko.



# 1. Laburpen exekutiboa

## Posizionamendu bereizgarria eta lidergoa mugikortasun jasangarriko soluzioetan

### Bidaiarien tren garraioa deskarbonizatzen

#### Bateria bidezko propulstioa



- Bezeroa: ZV VRR eta NWL, Ipar Renania-Westfalia eskualdeko operadoreak (Alemania)
- > 60 tren (+ 30 urtez mantentze-lanak)
- Zirkulazioa katenariadun eta katenariarik gabeko trenbideetan

Bateria bidez propulstutako teknologiarekin garatutako trenetako mundu osoko kontratu handiena

#### Hidrogeno bidez propulstutako tren-prototipoa



- **CAFek zuzendutako** eta enpresa hauek osatutako **partzuergoa**: **DLR** (Alemaniako Zentro Aeroespaziala), **RENFE**, **TOYOTA MOTOR EUROPE**, **ADIF**, **IP** (Portugaleko azpiegiturak), **CNH2** (Hidrogenoaren Zentro Nazionala) eta **FAIVELEY** Stemmann Technik
- Horixe izango da **kateneriadun bi modutako eta hidrogeno bidezko pila duen** trengintza arloko lehen ibilgailu-erakusleetako bat
- Partaidetza Europako tren arloko batzorde normalizatueta araudi-esparrua garatzeko



Diseinuko eta fabrikazioko fase aurreratuan Zaragozako fabrika

Toyota Motor Europe-ren erregai-pilak jasota (proba-fasean)

Probak 2022ko apirilean hasiko dituzte

### Hiri jasangarriak sortzen

#### E-mobility gamako hiriko autobusak

##### ISURPEN BAXUAK



##### URBINO HYBRID

Soluzio jasangarrien gama zabala

##### ZERO ISURPENAK



##### URBINO ELECTRIC

Liderra zero isurpeneko autobusen Europako merkatuan 2012tik



##### URBINO HYDROGEN

c.1.200 autobus elektriko entregatuta



##### TROLLINO

Hidrogeno bidezko > 50 autobus entregatuta



#### Greentech teknologiadun URBOS tranbiak

Ibilgailu barruko metaketa-sistemak, katenariarik gabe zirkulatzea eta balaztatzearen energia berreskuratzea ahalbidetzen dutenak.

- Ioi-litiozko bateriak
- Ultragaitasunak
- Ioi-litiozko bateriak + Ultragaitasunak



#### GREENTECH TEKNOLOGIAREN ABANTAILAK

- ✓ Katenariarik gabeko operazioa
- ✓ Azpiegiturako inbertsioa gutxitzea
- ✓ Energia-kontsumoaren optimizazioa
- ✓ Ikusizko inpaktua gutxitzea

Erreferentziak mundu osoan

> 15.000.000 km eginda 2010etik

Utrecht, Birmingham, Parramatta, Lieja, Luxenburgo, Newcastle, Canberra, Granada, Kaoshiung, Zaragoza eta Sevilla.

## Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa

**2. Finantza-informazioa**

> Kontratazioa

3. Burtsako informazioa

> Eskarien zorroa

4. Jasangarritasuna | ESG

> Emaidza-kontu bateratua

5. Aurreikuspenak

> Egoera-balantze bateratua

6. Eranskinak

### > Pandemia aurreko kaptazio maila altuak berreskuratzen eta urte honetarako ezarritako *book-to-bill* eko helburua gainditzen

Honako hauek izan dira **2021eko 4. HHan** eskarien zorrora gehitu diren kontratu esanguratsuenak:



#### Trenak

- 23 unitateren birgaitze-lanak Kairoko metrorako (Egipto)
- 28 LRVren hornidura Calgaryrentzat (Kanada)



#### Autobusak

- Hidrogeno bidezko autobusak Vienarako (Austria)
- Autobus elektrikoak hiri hauetarako besteak beste: Odense (Danimarka), Bartzelona (Espainia), Bamberg (Alemania), Poloniako hiri batzuk eta Berna (Suitza)
- Trolebusak Milanerako (Italia), Budapesterako (Hungaria) eta Pilsenerako (Txekiar Errepublika)
- Autobus hibridoak Namur-erako (Belgika) eta Madrilerako (Espainia), besteak beste
- Autobus konbentzionalak Poloniako eta Alemaniako hainbat hiritarako, eta Vienarako (Austria), besteak beste



Horiek guztiak kontuan hartuta, **2021 ekitaldiko guztizko kontratazioa** honako hau izan da:

	2018		2019		2020		2021		
	1HH-4HH, GUZTIRA	1HH-4HH, GUZTIRA	1HH-4HH, GUZTIRA	Trenak	Autobusak	1HH-4HH, GUZTIRA	Trenak	Autobusak	
Kontratazioa	2.902	4.066	2.123	1.410	713	3.776	2.982	794	
<i>book-to-bill</i>	1,4	1,6	0,8	0,7	1,0	1,3	1,3	1,1	

(milioi eurotan) <sup>1</sup>

**Erekorra**, eta horrek baieztatu egin ditu merkatuaren joera eta CAF Taldearen posizionamendua

<sup>1</sup> Kontratazio horrek ez ditu jasota **2022ko lehen hilabeteetan iragarritako kontratazio irmoak**. Horien balioa >800M€-koa da. Aldi honi dagokion kontratazioaren xehetasuna **Eranskinean**.



### 2021eko kontratazioa segmentuen arabera

#### Tren arloa

##### Tren-ibilgailuak **BtB > 1**

- Hainbat kontratu Europako merkatu nagusietan: Alemania eta Frantzia
- Eskualdeko trenetarako lehen kontratua Suedian (CAFentzako merkatu estrategikoa)
- Kanadan sartu da LRVrekin hitzartutako kontratuaren bidez
- Bateria bidezko trenen mundu osoko proiektu handienaren kontratazioa (ZV VRR eta NWL)
- Abian dauden kontratuen luzapenak gauzatu dira eta horien balioa >150M€-koa izan da

##### Zerbitzuak **BtB > 1**

- Lotutako mantentze-kontratua >30 urte Alemanian
- Zerbitzuen kontratazio errepikakorra, batez ere Suedian EuroMainten bidez
- Tailerreko ekipamendua eta ordezeko piezen hornidura
- Zerbitzu digitalen hornidura hainbat geografiatako bezeroei

##### Soluzio Integralak eta Sistemak (SIS) **BtB > 1**

- Kairoko metroko trenak birgaitzeko kontratua
- Seinaleztapeneko hainbat kontratu Espainian, Europako beste herrialde batzuetan eta Latamen
- Osagaien hornidura (trakzio-bihurgailuak, gurpilak, ardatzak, muntatutako ardatzak eta erreduzitzaileak) beste OEM batzuei eta tren arloko mantentzaileei/operadoreei
- Ingeniaritza integraleko proiektuen kontratazioa Erresuma Batuan eta Mexikon, eta energia sortzeko proiektu baten kontratazioa Espainian

#### Autobusak


- > 1.700 autobus kontratatuta 18 herrialdeko 100 hiri baino gehiagotan **BtB > 1**
- Kontratatutako autobusen c.% 50 zero isurpenekoak edo isurpen txikikoak dira
- Lidergo-postua Europako zero isurpeneko hiri-autobusen merkatuan




**BtB > 1 negozio guztietan. Salmenta gurutzatuko sinergia handiak**

### 2021eko kontratazioa geografien arabera

#### Geografia nagusiak




#### 2021eko kontratazioa




**Kontsolidazioa European; horixe da Solarisen merkatu naturala eta mundu mailako tren-merkatu irisgarri handiena**

<sup>1</sup> UNIFE, WRMS 2020etik 2025era bitarteko iragarpena. Rolling Stock (tren-ibilgailuak) segmenturako aurrez ikusitako urteko bolumena, merkantziak albo batera utzita, 2023-2025 aldian, V-ko suspertze-egoeraren arabera.



> Errekorreko eskari-zorroa<sup>1</sup>, etorkizuneko salmentetarako ikusgarritasun handia eskaintzen duena



Eskari-zorroaren igoera (+% 9) nahiz eta Taldearen jardura handitu den



Mundu mailako zorroa eta oso dibertsifikatua



Sektorearen igoerak eta CAF Taldearen posizionamenduak nabarmen bultzatu dute zorroa azken urteotan

<sup>1</sup> Zorro horrek ez ditu jasota 2022ko lehen hilabeteetan iragarritako kontratazio irmoak. Horien balioa >800M€-koa da.

## 2. Finantza-informazioa

### > Emaidza-kontu bateratua



> Igoera salmentetan eta emaitzetan. Irabazi garbia pandemia aurrekoa baino handiagoa.

(milioi eurotan)	Pandemia aurretik			Ald. 2021/2020
	2019 <sup>1</sup>	2020	2021	
<b>Negoio-zifraren zenbateko garbia</b>	<b>2.598</b>	<b>2.762</b>	<b>2.943</b>	<b>Δ % 7</b>
<b>EBITDA</b>	<b>244</b>	<b>201</b>	<b>255</b>	<b>Δ % 26</b>
<b>EBITDA Marjinaren %</b>	<b>% 9,4</b>	<b>% 7,3</b>	<b>% 8,7</b>	<b>-</b>
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(81)	(80)	(90)	<b>Δ % 11</b>
Ustiapenaren emaitza	163	121	165	<b>Δ % 36</b>
Finantza arloko emaitza	(62)	(68)	(38)	<b>∇ % 44</b>
Finantza-sarrerak	17	6	7	<b>Δ % 15</b>
Finantza-gastuak	(73)	(48)	(43)	<b>∇ % 10</b>
Trukeko edo kanbioko aldeak	(6)	(26)	(2)	<b>∇ % 91</b>
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	(0)	0	<b>-</b>
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>99</b>	<b>49</b>	<b>130</b>	<b>Δ 2,7x</b>
Irabazien gaineko zerga	(36)	(39)	(41)	<b>Δ % 6</b>
Zergen ondoren, emaitza garbia	63	10	89	<b>Δ 8,9x</b>
Interes minoritarioak	0	1	3	<b>Δ 3,0x</b>
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>63</b>	<b>9</b>	<b>86</b>	<b>Δ 9,6x</b>


<sup>1</sup> EBITDA, Ustiapeneko Emaidza, zerga aurreko emaitza, zergen ondorengo emaitza garbia eta erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza doituta. Ikus 2019ko kudeaketa-txostena

> Salmenta historikoak eta merkatuaren bilakaerarekin lotutako aurreikuspenen gaintik hazten ari direnak<sup>1</sup>


### Salmentak (M€)



> Tren arloko jarduera sendoa.








> Solarisen erresilientzia 700M€ baino gehiagoko bolumenetan, osagarrien hornidurarekin lotutako testuinguru aurkakoa denean. 2021eko 4.HHan egin gabeko salmentak 2022ra bideratuko ditu.



<sup>1</sup> Tren arloa: CAGR=merkatu irisgarriaren % 2,3 V erako susperraldi-egoeraren arabera 2023-2025 arte (Iturria: WRMS 2020, UNIFE) / Autobusak: CAGR=hiriko autobus jasagarrien Europako merkatuaren % 4,4 2025 arte (Iturria: Interact Analysis + CAF Taldearen aurreikuspenak)  
<sup>2</sup> 2021eko salmenten aurreikuspena, osagaien mundu mailako krisiaren inpaktua hasi aurretik. Salmenten aurreikuspen honek merkatuaren esperotako hazkundera gaintutako luke.

### > Hedapena tren-negozio guztietan

## Salmentak (M€)

 <b>Trenak</b>	<b>Tren-ibilgailuak</b>	<b>Zerbitzuak</b>	<b>Soluzio Integralak eta Sistemak (SIS)</b>
salmenten guztizkoarekin alderatuta <sup>1</sup>	<div style="text-align: center;">  <p>— Δ % 5 →</p> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <span>2019</span> <span>2020</span> <span>2021</span> </div>	<div style="text-align: center;">  <p>— Δ % 11 →</p> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <span>2019<sup>3</sup></span> <span>2020</span> <span>2021</span> </div>	<div style="text-align: center;">  <p>— Δ % 15 →</p> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> <span>2019</span> <span>2020</span> <span>2021</span> </div>
<div style="text-align: center;">  </div>	<p><b>Zorroaren gauzatze sendoa</b></p> <p>&gt; <b>70 proiektu</b> abian segmentu hauetan: eskualdekoak/aldirikoak, metroa eta tranbia/LRV.</p> <p>Abian dauden <b>proiektu nagusiak</b>: Wales&amp;Borders (Erresuma Batua), NSkoa handitzekoa (Herbehereak), SNCF (Frantzia), Manilako LRVak (Filipinak), Liejarako (Belgika) eta Amsterdamerako (Herbehereak) tranbiak, eta Napoleserako (Italia) eta Bruselarako (Belgika) metroak.</p>	<p><b>2021ean</b>, mantentzea barneratuta duten flotetako zerbitzu mailak pixkanaka hobetu dira, baina oraindik ere ez dira erabat berrezarri<sup>2</sup>.</p> <p><b>Mantentze-lanen jarduerak hazkunde esanguratsua</b> izan du Covid aurreko mailekiko (2019).</p> <p><b>Salmenta nagusiak</b> EuroMainten (Eskandinavia) jardueratik eta Espainiako, Europako gainerako herrialdeetako eta munduko gainerako tokietako flotetako mantentze-zerbitzuetatik eratorri dira.</p>	<p><b>Proiektu integralen eta seinaleztapeneko proiektuen gauzatzea bizkortu egin da.</b></p> <p>Covid-19ak 2020an baino inpaktu txikiagoa izan du.</p>

<sup>1</sup> Salmenta bateratuen guztizkoen gaineko ehunekoak, autobusen negozioa barne.

<sup>2</sup> >% 90ko trafikoa duten proiektuen % 88, eta >% 70 trafikoa duten flotaren % 97.


<sup>3</sup> Sartuta daude 2019ko bigarren seihilekoan egindako EuroMainten salmentak.

## 2. Finantza-informazioa

### > Emaidza-kontu bateratua


> Solarisen ibilbidea sendoa eta 2022an jarraipena izango du

### Salmentak



> Solaris izan da zero isurpeneko hiriko autobusen Europako merkatuan liderra azken hamarkadan

Hiriko autobus elektriko eta hidrogeno bidezko autobusen Europako merkatua<sup>3</sup>



c.1.200 e-busak eta hidrogeno bidezko > 50 autobus entregatuta  
 > 140 hiri, 18 herrialde  
 Ehunka milioi km  
 ≠ baldintza klimatikoak



<sup>1</sup> 2021eko entregan eta salmenten aurreikuspena, osagaien mundu mailako krisiaren inpaktua hasi aurretik.


<sup>2</sup> e-mobility:gama Zero isurpeneko autobusak (H<sub>2</sub>/ elektrikoa, trolebusa) eta isurpen baxukoak (hibridoak) / GNK autobusak (Gas Natural Konprimatua) eta Konbentzionalak (diesela)

<sup>3</sup> Autobus erregistratuta, MMA > 8t.


Merkatuak: EB27. Solaris partaide ez den herrialdeak, Erresuma eta Irlanda, kanpoan daude. Ez daude trolebusak sartuta. Iturria: Chatrou/CME Solutions

> EBITDAren errekor historikoa eta ibilbide positiboa 2021ean. Horren ondorioz, pandemia aurreko mailak gainditu dituen emaitza garbia sortu da

### EBITDA (M€) eta EBITDA marjina (%)



### Emaidza garbia<sup>2</sup> (M€) eta marjina garbia (%)



> Honako hauek izan dira 2021ean emaitza garbiaren ibilbiderako erabakigarriak izan diren elementu nagusiak:

(+)

- Covid-19ak inpaktu txikiagoa izan du Zerbitzuetan
- Proiektu integralak bizkortu egin dira
- Finantza-gastuaren optimizazioa eta trukeko aldeetan jaitsiera nabarmena
- Tasa fiskala hobetu da (pandemia aurreko mailekiko ere bai)

(-)

- Taldearen jarduera oraindik ere ez dago normalizatuta Covid-19a dela eta.
- Eragiketa korporatiboei lotutako aparteko gastuak
- Osagaien krisia dela eta, Bolumen txikiagoa eta horren aldekoa ez den mix-a Solarisen

<sup>1</sup> Doitutako zenbatekoak. Ikus 2019ko kudeaketa-txostena


<sup>2</sup> Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza garbia.

#### > Ondarea indartu eta balantzearen geldialdia desagertu da

(milioi eurotan)	2020	2021
Aktibo finkoak <sup>1</sup>	1.162	1.164
Zirkulatzaila <sup>3</sup>	106	140
<b>Aktibo garbia</b>	<b>1.268</b>	<b>1.304</b>
Ondare garbia	644	740
Finantza-zor garbia	311	278
Beste aktibo eta pasibo batzuk <sup>2</sup>	313	286
<b>Ondarea eta pasibo garbia</b>	<b>1.268</b>	<b>1.304</b>


#### > CAPEXak geldi jarraitu du

CAPEX (materiala + inmateriala) (M€)



#### > Kontrolatutako zirkulatzaila

Zirkulatzaila garbia (M€)



<sup>1</sup> Honako hauek biltzen ditu: aktibo ukigarriak, aktibo immaterialak, baliokidetzan jartzeagatiko inbertsioak, beste aktibo ez-korrente batzuk eta finantza-zor garbiaren kalkuluan sartutako kontu-sailetatik kanpo utzitako beste finantza-aktibo ez-korrente batzuk.

<sup>2</sup> Epe Luzerako Pasiboa jasotzen du, Finantza Zor Garbira gehitutako kontu-sailak eta zirkulatzailaren inbertsioan jasotzen ez diren beste aktibo eta pasibo batzuk kanpoan utzita, eta horiei geroraturako zergarekin lotutako aktiboak eta aktiboaren estaldura ez-korrontetik eratorritakoak kenduta.


<sup>3</sup> 2021eko ekitaldian, adierazle honen parametroetan aldaketa bat gertatu da aurrez egoera-balantze bateratuko "Hornidura korronteak" epigrafean erregistratzen ziren bermeengatiko hornidura batzuko egoera-balantze bateratuko "Hornidura ez-korronteak" epigrafera birsailkatu direlako. Aldaketa hori dela eta, 2020ko abenduaren 31n zirkulatzailan egindako inbertsioan 54 milioi euroko igoera egon da.



## 2. Finantza-informazioa

### > Egoera-balantze bateratua


➤ Eragiketen emaitzan izandako hobekuntzari, inbertsioei eutsi izanari eta kapital zirkulatzaileraren mailak mantendu izanari esker, aldi horretako Cash-flowa, dibidenduak ordaindu aurretik<sup>1</sup>, 62M€-koa da




<sup>1</sup>2019ko ekitaldira zordundutako dibidneduak, 2021eko urtarrilean ordaindutakoak.

> Finantza-posizioa erosketen aurreko mailatan. Finantza arloko sendotasuna hazkunde-ekimen berriei ekiteko

### FZG bilakaera eta FZG/Ebitda ratioa




### Erabilgarri dagoen likidazioa



<sup>1</sup> 2019an, doitutako Finantza Zor Garbia/EBITDA ratioa.


> Hobekuntza nabarmena akziodunari ordaintzeko gaitasunean

#### Akzio bakoitzeko irabazia-BPA (€)



> Azken urteotako akzio bakoitzeko irabazi altuena.

#### Akzio bakoitzeko dibidendua (€)



> 2021eko emaitza dela eta, akzio bakoitzeko dibidenduaren balioak pandemia aurreko mailetakoak baino altuagoak izan dira.

<sup>1</sup> Honela kalkulaturik: Akzio bakoitzeko dibidendu gordina / Urteko azken kotizazio-prezioa.

<sup>2</sup> 2021eko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendua (dibidenduaren 0,40€ kontura + dibidendu arruntaren 0,60€ 2022ko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende).


## Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa
2. Finantza-informazioa
- 3. Burtsako informazioa**
4. Jasangarritasuna | ESG
5. Aurreikuspenak
6. Eranskinak

# 3. Burtsako informazioa

> **Analisten % 86k gomendatzen du CAFeko akzioak EROSTEA. Haien helburu den batez besteko prezioa 49 €/akziokoa da<sup>1</sup>**


CAFen bilakaera vs IBEX 35



Burtsako adierazleak

	2021
Burtsako kapitalizazioa (eurotan)	1.254.675.450
Akzio kop.	34.280.750
Azken kotizazio-prezioa (eurotan)	36,6
Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	42,1
Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	33,1
Negoziatutako bolumena (milaka akzio)	8.584
Negoziatutako eskudirua (milaka euro)	320.090

Akzioen egitura



**Kotizazio-prezioaren<sup>1</sup> eta analisten helburu-prezioaren batezbestekoaren arteko GAPa > % 40koa da**

**Ez da aldaketa esanguratsurik izan akzioen egituran**

<sup>1</sup> 2022ko urtarrilaren 28an. Iturria: Factset.

## Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa

2. Finantza-informazioa

3. Burtsako informazioa

**4. Jasangarritasuna | ESG**


5. Aurreikuspenak

6. Eranskinak


# 4. Jasangarritasuna | ESG

## > Jasangarritasun arloko helburuekin lotutako aurrerapenak eta betetzea


Negoio Zifra Jasangarria Europako Taxonomia tresnaren arabera<sup>1</sup>



Jasangarritasuneko KPlen betetzea <sup>2</sup>



ESG Rating Sustainalytics



Europako lidergoa



### Mugarri nagusiak:

- ✓ Taldearen **materialtasuneko matrizea** eguneratu eta **lehen ESG Equity Story** argitaratu dute ([www.caf.net](http://www.caf.net))
- ✓ Sozietatearen **webgunean jasangarritasunari** buruzko atal espezifikoa sortu dute ([www.caf.net](http://www.caf.net))
- ✓ **Solarisen eCity web-ataria** argitaratzea. Zero isurpeneko garraio publikoa jorratzen du oso-osorik (<https://ecity.solarisbus.com/en>)
- ✓ **Karguak bereiztea** Presidentearen eta Kontseilari Delegatuaren artean
- ✓ CAF Taldea **SBTi ekimenera** (Science Based Targets Initiative) eta **Race to Zerora** atxiki da.
- ✓ CAFi esleitu diote **bateria bidez propulsatutako teknologia** duen mundu osoko tren-kontratu handiena (ZV, VRR eta NWL Alemanian)
- ✓ **Solarisen lidergoa** autobus elektrikoaren Europako merkatuan.
- ✓ Aurrerapen adierazgarriak FCH2RAIL proiektuan EBko hainbat herrialdetan **hidrogeno bidezko tren-prototipo** bat garatzeko, fabrikatzeko eta balioztatzeko.
- ✓ Finantza arlokoa ez den Informazio Egoeraren Txostena eta Jasangarritasuneko Txostena **bateratu** dira.



<sup>1</sup> Egokitzapen-helbururako hautagarritasun-irizpideen arabera. Ikus EINF – Jasangarritasuneko Txostena

<sup>2</sup> Ikus Jasangarritasuneko Aginte Koadroa Eranskinean.

<sup>3</sup> CAF SA Zilarrezko Kalifikazioa CAF Taldearentzat

## Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa
2. Finantza-informazioa
3. Burtsako informazioa
4. Jasangarritasuna | ESG
- 5. Aurreikuspenak**
6. Eranskinak



# 5. Aurreikuspenak

Sektore mailako aurreikuspenak aldekoak diren testuinguruan eta nolabaiteko ziurgabetasuna nagusi den ingurunean...




**Aldeko aurreikuspenak** sektorean honako hauek direla eta:

- **Mundu mailako hazkundera** honako hauei esker:
  - Susperraldi-programak moneta mailako pizgarriekin.
  - Politika fiskal hedakorrak
- **Garapen jasangarriko helburuak**
  - Klima arloko helburuek isurpenak gutxitzeko erritmoa bizkortuko dute, trantsizioa bizkortzen duten arauketekin
  - Gobernuek eta udalek zero isurpeneko ibilgailuak erabilgarri izatearekin lotuta beren gain hartutako konpromisoak gero eta handiagoak dira.
  - Bidaiariek mugikortasun jasangarriko soluzioak izatearekin lotuta egindako eskaera bizkortu egin da.
- **Biztanleriaren urbanizazioa gero eta handiagoa da:** NBEren arabera, 2050ean, biztanleriaren % 68 hirietan bizi da (gaur egun, indize hori % 55ekoa da).



**Esperotako merkatuaren bilakaera<sup>1</sup>**



**Jasangarritasuna funtsezko joera da eta hala izaten jarraituko du**

Honako hauek direla eta, **ingurune konplexua** aurrez ikusi da Covid-19aren, inflazioaren eta osagaien mundu mailako krisiaren bilakaerari lotuta.



<sup>1</sup> Iturria: WRMS 2020, UNIFE eta Interact Analysis + CAF Taldearen aurreikuspenak

... CAF Taldeak 2022an emaitzetan eta salmentetan hazten jarraitzea eta akziodunarentzako balioaren sorrera handitzea espero du

Ingurune konplexu horrek sortzen dituen **zuhurtziak** ahaztu gabe, Taldeak helburu hauek ditu:

**Asmoa**



**2022ko helburuak**

**Merkatuaren gainetik hazten jarraitzea**



**Δ Salmentak > sektore mailako aurreikuspenak**  
**Book to Bill > 1**

**Errentagarritasuna suspertzeko lanean aurrera egitea**



**Δ EBITDA**  
**Δ Emaidza garbia**  
**Δ Dibidendua** } **> Δ Salmentak**

**Jasangarritasun arloko posizionamendua kentsolidatzea**



• **Solarisen lidergoari eustea** 🏆  
• **Low Risk Sustainability kalifikazioa mantentzea**  
**Δ Negozio Zifra Jasangarria Taxonomia tresnaren arabera**

## 6. Eranskinak

a | Kontratazioaren xehetasunak

b | Finantza Egoera Bateratuen xehetasuna

c | Jasangarritasuneko KPlak

d | Errendimenduko Neurri Alternatiboak (MAR)



# A| Kontratazioaren xehetasunak

2021eko urtarrila-abendua aldiko eskarien zorroan jasotako eta iragarritako kontratuak

Data	Proiektua	Herraldea	Deskribapena	Bezeroa	Mota	Aukera gehiago	Ibilgailuak		Negozioa			Zenbatekoa (M €)		
							# unit.	Plataforma	Gainerako negozioak	Negozioa	Irismena		Ezaugarriak	
1HH	COTRAL	Italia	Autobusetarako hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hiriarteko autobusen hornidura	80	-	
1HH	Brasov eta Târgu Jiu	Errumania	Autobusetarako hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Trolebusetarako hornidura	36	~25	
1HH	ÖBB	Austria	Autobusetarako hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Bai			✓	Autobusa	Hidrogeno eta diesel bidezko hiri-autobusen hornidura	-	-	
1HH	Arriva Netherlands	Herbehereak	Autobusetarako hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hidrogenozko hiribusetarako hornidura	10	-	
1HH	Iasi, Sibiu, Sighetu Marmatiei, Suceava, Târgu Mures, Pitesti	Errumania	Autobusetarako hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hiriko autobus elektrikoaren eta birkarga-azpiegituraren hornidura	123	~65	
1HH	RER B	Frantzia	Aldiriko trenen hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Bai	✓	146	-				-	
2HH	AB Transitio	Suedia	Eskualdeko trenen hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Bai	✓	28	Civity				>250	
2HH	Lisboa	Portugal	Tranbien hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez	✓	15	Urbos				>43	
2HH	Madril	Espania	Autobusetarako hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Autobusa	GNK bidezko hiri-autobusen hornidura	250	~75
2HH	SJ AB	Suedia	Tren-floten mantentzea eta gaueko kotxeak birgaitzea	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Zerbitzuak	Eskualdeko unitateen mantentzea eta birgaitzea	12 urte	>100
2HH	De Lijn	Belgika	Tranbien hornidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	18	Urbos					
2HH	Sydney	Australia	Tranbien hornidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	4	Urbos					
2HH	JV Salini Kolin	Turkia	Seinaleztapena	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Seinaleztapena	Katigamendu elektronikoaren ekipamendua, CTC eta ERTMS seinaleztapen-sistemak		~100
2HH	Ruhrbahn	Alemania	LRVen hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez	✓	51	-					
2HH	Friburgo	Alemania	Tranbien hornidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	8	Urbos				~200	
3HH	ZV VRR eta NWL	Alemania	Bateria bidezko trenen hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez	✓	> 60	Civity	✓	Zerbitzuak	Bateria bidezko trenen mantentze-lana	30 urte	-
4HH	Aalborg	Danimarka	Autobusetarako hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hiriko autobus elektriko bi-artikulatuen hornidura	14	~45
4HH	Genova	Italia	Autobusetarako hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hiribus elektrikoetarako hornidura	30	
4HH	Bartzelona	Espania	Autobusetarako hornidura	Berria ez	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hiribus elektrikoetarako hornidura	24	
4HH	L1 Kairo	Egipto	Metro-kotxeen birgaitzea	Berria	Oinarriko kontratua	Ez				✓	Birgaitzea	Birgaitzea	23	~180
4HH	Calgary	Kanada	LRVen hornidura	Berria	Oinarriko kontratua	Bai	✓	28		✓	Zerbitzuak	TSMSSA (Technical Support and Maintenance Spares Supply Agreement) zerbitzua	-	-

# b | Finantza Egoera Bateratuen xehetasuna

## > Egoera-balantzearen xehetasuna

(milioi eurotan)	2020/12/31	2021/12/31	Ald. %
<b>Aktiboa</b>			
Ibilgetu ukiezina	324	332	% 2
Ibilgetu materiala	404	388	(% 4)
Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak	7	17	% 143
Finantza-aktibo ez-korronteak	429	430	-
Estaldurako eratorri ez-korronteak	42	36	(% 14)
Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak	147	145	(% 1)
Beste aktibo ez-korronte batzuk	6	5	(% 17)
<b>Aktibo ez-korronteak</b>	<b>1.359</b>	<b>1.353</b>	<b>-</b>
Izakinak	482	487	% 1
Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberrako bezeroak	1.357	1.512	% 11
Beste zordun batzuk	171	169	(% 1)
Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak	9	10	% 11
Beste finantza-aktibo korronte batzuk	102	131	% 28
Estaldurako eratorri korronteak	15	48	% 220
Beste aktibo korronte batzuk	10	9	(% 10)
Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk	574	551	(% 4)
<b>Aktibo korronteak</b>	<b>2.720</b>	<b>2.917</b>	<b>% 7</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>4.079</b>	<b>4.270</b>	<b>% 5</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia</b>			
<b>Ondare garbia</b>	<b>644</b>	<b>740</b>	<b>% 15</b>
Hornidura ez-korronteak	100	91	% 15
Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak	809	676	(% 16)
Beste zenbait finantza-pasibo	79	77	(% 3)
Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak	134	141	% 5
Estaldurako eratorri ez-korronteak	43	36	(% 16)
Beste pasibo ez-korronte batzuk	94	82	(% 13)
<b>Pasibo ez-korrontea</b>	<b>1.259</b>	<b>1.103</b>	<b>(% 10)</b>
Hornidura korronteak	216	287	% +22
Kreditu-erakundeekiko zor korronteak	171	283	% 65
Beste zenbait finantza-pasibo	62	49	(% 21)
Estaldurako eratorri korronteak	20	69	% 245
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk	1.702	1.733	% 2
Beste pasibo korronte batzuk	5	6	% 20
<b>Pasibo korronteak</b>	<b>2.176</b>	<b>2.427</b>	<b>% 10</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia, guztira</b>	<b>4.079</b>	<b>4.270</b>	<b>% 5</b>

<sup>1</sup> Solarisen epe luzerako bermeen horniduren birsailkapena, 54 milioi euroko zenbatekoa duena.

### Ibilgetu ukiezina

Epigrafe honetan 110 milioi euroko Merkataritza Funtsa, eta harreman komertzialak, bezeroen zorroa eta markena jasotzen dituen (134 milioi euroko zenbatekoa duena) ditu erregistratuta honako hauen erosketaren ondorioz: BWB, Solaris, EuroMaint eta Orbital.

### Ibilgetu materiala

Ibilgetuaren oinarrikoak ez diren inbertsioetan gertatu den jaitsierak % 4 gutxitu du kontu-sail honen saldoa.

### Finantza-aktibo ez-korronteak

Batez ere, Brasilgo eta Mexikoko emakida-kontratuei lotutako aktiboak dira. Epe laburrera begira emakida horiek lotuta kobratu beharreko zatia "Beste zordun batzuk" epigrafean dago jasota.

### Zirkulatuzailean egindako inbertsioa <sup>1</sup>

Zirkulatuzailearen maila 140 milioi eurokoa da 2021eko abenduaren 31n; hau da, 2020ko abenduaren 31ko itxieran baino 34 milioi gehiagokoa. Horren eragin nagusia da 2020ko ekitaldiaren itxieran aldeko kutzaren posizio garbia zuten ibilgailuen proiektu jakin batzuetako zirkulatuzailearen kontsumoa.


# b | Finantza Egoera Bateratuen xehetasuna

## > Egoera-balantzearen xehetasuna

(milioi eurotan)	2020/12/31	2021/12/31	Ald. %
<b>Aktiboa</b>			
Ibilgetu ukiezina	324	332	% 2
Ibilgetu materiala	404	388	(% 4)
Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak	7	17	% 143
Finantza-aktibo ez-korronteak	429	430	-
Estaldurako eratorri ez-korronteak	42	36	(% 14)
Geroraturako zergaren ondoriozko aktiboak	147	145	(% 1)
Beste aktibo ez-korronte batzuk	6	5	(% 17)
<b>Aktibo ez-korronteak</b>	<b>1.359</b>	<b>1.353</b>	<b>-</b>
Izakinak	482	487	% 1
Salmenten eta zerbitzuen prestazioaren araberako bezeroak	1.357	1.512	% 11
Beste zordun batzuk	171	169	(% 1)
Geroraturako zergaren ondoriozko aktiboak	9	10	% 11
Beste finantza-aktibo korronte batzuk	102	131	% 28
Estaldurako eratorri korronteak	15	48	% 220
Beste aktibo korronte batzuk	10	9	(% 10)
Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk	574	551	(% 4)
<b>Aktibo korronteak</b>	<b>2.720</b>	<b>2.917</b>	<b>% 7</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>4.079</b>	<b>4.270</b>	<b>% 5</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia</b>			
<b>Ondare garbia</b>	<b>644</b>	<b>740</b>	<b>% 15</b>
Hornidura ez-korronteak	100	91	% 15
Kreditu-erakundeekiko zor ez-korronteak	809	676	(% 16)
Beste zenbait finantza-pasibo	79	77	(% 3)
Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak	134	141	% 5
Estaldurako eratorri ez-korronteak	43	36	(% 16)
Beste pasibo ez-korronte batzuk	94	82	(% 13)
<b>Pasibo ez-korrontea</b>	<b>1.259</b>	<b>1.103</b>	<b>(% 10)</b>
Hornidura korronteak	216	287	% +22
Kreditu-erakundeekiko zor korronteak	171	283	% 65
Beste zenbait finantza-pasibo	62	49	(% 21)
Estaldurako eratorri korronteak	20	69	% 245
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk	1.702	1.733	% 2
Beste pasibo korronte batzuk	5	6	% 20
<b>Pasibo korronteak</b>	<b>2.176</b>	<b>2.427</b>	<b>% 10</b>
<b>Pasiboa eta ondare garbia, guztira</b>	<b>4.079</b>	<b>4.270</b>	<b>% 5</b>

### Ondare garbia

Ekitaldian sortutako emaitzak eraginda gertatu da ondarearen igoera:



### Finantza-zor garbia

2021eko abenduaren 31n, FZG 278 milioi eurokoa da; ondorioz, 2020ko abenduarekin alderatuta, jaitziera 33 milioi eurokoa izan da. FZG/EBITDA ratioa 1,1ekoa da. Aldeko bilakaera hori honako hauek ahalbidetu dute: eragiketen marjinak, inbertsioei eustea eta kapital zirkulatuaren mailak mantendu izana. Aldi horretako cash-flowa, dibidenduak ordaindu aurretik, 62 milioi eurokoa da.

## b | Finantza Egoera Bateratuen xehetasuna

(milioi eurotan)	2020	2021	Ald. %
<b>Negozio-zifraren zenbateko garbia</b>	<b>2.762</b>	<b>2.943</b>	<b>Δ % 7</b>
<b>EBITDA</b>	<b>201</b>	<b>255</b>	<b>Δ % 26</b>
<b>EBITDA Marjinaren %</b>	<b>% 7,3</b>	<b>% 8,7</b>	-
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(81)	(90)	Δ % 11
Ustiapenaren emaitza	121	165	Δ % 36
Finantza arloko emaitza	(68)	(38)	▽ % 44
Finantza-sarrerak	6	7	Δ % 15
Finantza-gastuak	(48)	(43)	▽ % 10
Trukeko edo kanbioko aldeak	(26)	(2)	▽ % 91
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	0	▽ % 9
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>49</b>	<b>130</b>	<b>Δ % 165</b>
Irabazien gaineko zerga	(39)	(41)	Δ % 6
Zergen ondoren, emaitza garbia	10	89	Δ % 766
Interes minoritarioak	1	3	Δ % 130
<b>Sozietate nagusiari egotzitako emaitza</b>	<b>9</b>	<b>86</b>	<b>Δ % 853</b>

**Negozio-zifraren zenbateko garbian** gertatu den % 7ko urtetik urterako igoera, batez ere, pandemiaren fase zorrotzenaren ondoren gertatu den jardueraren susperraldiak ahalbidetu du. Trenen segmentuaren salmentek izan duten igoera % 9,1 eta % -0,6koa izan da autobusen segmentuan. Autobusen segmentuak izandako salmentek 2021ean osagaien horniduran gertatu diren arazoaren eragin nabarmena jasan dute.

Honako hauek izan dira 2021ean abian egon diren proiektu nagusiak: Holandako NSrentzako Civity unitateak, Erresuma Batuko Wales & Borders-entzako Civity eskualdeko unitateak, SNCF-entzako Intercity unitateak eta Manilarako tranbia-unitateak.

2021eko abenduaren 31n, **EBITDA** 255 milioi eurokoa izan da (salmentekin alderatuta, % 8,7koa); hau da, aurreko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta, igoera % 26koa izan da batez ere jardueraren gorakadaren eta COVID-19aren eragin txikiagoaren ondorioz. Salmentekiko EBITDAren marjinak % 1,4 egin du gora 2020ko datuekin alderatuta.

## b | Finantza Egoera Bateratuen xehetasuna

(milioi eurotan)	2020	2021	Ald. %
<b>Negoio-zifraren zenbateko garbia</b>	<b>2.762</b>	<b>2.943</b>	<b>Δ % 7</b>
<b>EBITDA</b>	<b>201</b>	<b>255</b>	<b>Δ % 26</b>
<b>EBITDA Marjinaren %</b>	<b>% 7,3</b>	<b>% 8,7</b>	-
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(81)	(90)	Δ % 11
Ustiapenaren emaitza	121	165	Δ % 36
Finantza arloko emaitza	(68)	(38)	▽ % 44
Finantza-sarrerak	6	7	Δ % 15
Finantza-gastuak	(48)	(43)	▽ % 10
Trukeko edo kanbioko aldeak	(26)	(2)	▽ % 91
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	0	▽ % 9
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>49</b>	<b>130</b>	<b>Δ % 165</b>
Irabazien gaineko zerga	(39)	(41)	Δ % 6
Zergen ondoren, emaitza garbia	10	89	Δ % 766
Interes minoritarioak	1	3	Δ % 130
<b>Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza</b>	<b>9</b>	<b>86</b>	<b>Δ % 853</b>

**Finantza-emaitza** -38 milioi eurokoa izan da (hau da, 2020ko ekitaldiko -68 milioi eurokoa baino 30 milioi euro hobe). Trukeko edo kanbioko aldeak izan duten inpaktu txikiagoak (2021ean 24 milioi euro gutxiago 2020ko datuekin alderatuta) eta interesekin lotutako finantza-kostuak zertxobait hobetu izanak bultzatu du hori batez ere.

**Zergen aurreko emaitza**, 2021eko abenduaren 31n, 130 milioi eurokoa izan da. Aipatutako jardueraren igoera, lehen aipatu dugun moduan COVID-19ak eraginik ez izatea eta 2020an sortutako truke-alde negatiboen eragina izan dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta gertatu den aldakuntza positiboa ahalbidetu faktore nagusiak.

Amaitzeko, **zergen ondorengo emaitza garbia**, 2021eko abenduaren 31n, positiboa izan da: 89 milioi eurokoa.

# c | Jasangarritasuneko KPlak



Adierazlea	Unitatea	Erreafia			Helburua
		FY19	FY20	FY21	FY21
CO2 isurpenen intentsitatea <sup>1</sup>	t Co2 bal./ HHT	4,0	3,1	2,4	● > 3,0
Energiaren kontsumoa, lan egindako ordu bakoitzeko <sup>1</sup>	kwh/orduko	3,1	3,5	3,5	● < 3,5
ISO 14001 estaldura	Langileen %	62	65	70	● > 70
Soluzio jasangarrien eskarien zorroa	% elektrikoak, hibridoak, hidrogeno bidezkoak	70	72	79	● > 74
Bidaiariei kalte pertsonalak eragin dizkien istripuen kopurua	kopurua	0	0	0	● 0
Giza Eskubideak bete ez diren kasuen kopurua	kopurua	0	0	0	● 0
Prebentzio-kulturaren indizea <sup>1</sup>	1 – 4	2,8	2,8	- (3)	● > 2,8
Maiztasun Indizea	Lan egindako milioi ordu bakoitzeko baja eragindako istripu kopurua	20,9	18,0	17,3	● < 18,0
ISO 45001 estaldura	Langileen %		47	52	● > 47
Ebaluatutako hornitzaileak, ebaluatu beharreko guztizko Risk Mapping-arekin alderatuta <sup>1</sup>	Hornitzaileen %		89,6	84,8	● 90
Arrisku altu/ertaineko hornitzaileei egindako erosketak <sup>1</sup>	Erosketen %	2,6	2,2	3,9	● < 2,2
Bezeroen asebetetzearen balorazioa <sup>1</sup>	Inkesta 0 – 10	7,5	7,5	7,7	● > 7,5
Net Promoter Score indizea (leialtasuna) <sup>1</sup>	Inkesta 0 – 10	7,8	8,1	8,0	● > 8,0
Akziodunen asebetetzearen balorazioa <sup>1</sup>	Kudeaketa-txostenaren aldeko bozketaren % JGAn <sup>2</sup> presente eta ordezkatuta dauden akziodunen kopuru osoaren gainean	97,7	99,9	99,0	● > 98,0
Hornitzaileen asebetetzearen balorazioa <sup>1</sup>	Inkesta 0 – 10	7,8	8,1	7,9	● > 8,0
Erakundearen osasun-indizea (langileak)	0 – 10 inkesta	6,2	6,3	6,4	● > 6,3
Lehia arloko eta balore-merkatuko jardueratik eratorritako administrazio-zigorak	Miloi €-tan	38,5*	0	1,7 *	● 0
Sustainability jasangarritasunaren balorazioa <sup>1</sup>	Arrisku maila	Handia (31,8)	Ertaina (28,5)	Txikia (18,6)	● Ertaina
MSCI jasangarritasunaren balorazioa <sup>1</sup>	Maila	BBB (5,1)	BBB (5,6)	- (3)	● A
S&P jasangarritasunaren balorazioa <sup>1</sup>	0 – 100	17	23	56	● > 50
Ecovadis jasangarritasunaren balorazioa <sup>1</sup>	Maila	Brontzea (51)	Brontzea (51)	Zilarra (65)	● Zilarra
ISO 9001 ziurtagiriaren estaldura	Langileen %	89	89	92	● > 90
ISO TS 22163 (IRIS) ziurtagiriaren estaldura	aplikagarria den tren arloko langileen %	82	82	86	● > 85

(1) Urteko adierazlea

(2) Akziodunen Batzar Nagusia

(3) Ez zen ebaluatu 2021ean

(\*) Epaitegietan helegitea jarri da zenbateko horien aurka

● Helburuaren berdina edo hobea

● Aurreko urtekoa baino hobea, helburua baino okerragoa

● Aurreko urtekoa eta helburua baino okerragoa



Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk (“Alternative Performance Measures”, “APMs” ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2021eko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuandago** jasota. Dokumentua CNMVren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta sozietatearen webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) dago irakurgai, 10. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA  
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO  
SOZIETATEAK (BATERATUA)



2021EKO URTEKO TXOSTENA

2022KO OTSAILA

# *Your Way* TO FUTURE MOBILITY

---

ONDO PRESTATUTA ETA BEGIAK ERNE... HORIXE DA  
MUNDU MAILAKO GARRAIOARI BEGIRATZEN DIOGU  
MODUA.

HORRELA DISEINATZEN, GARATZEN, FABRIKATZEN,  
INSTALATZEN ETA TXERTATZEN DITUGU  
ELKARLOTUTAKO MUGIKORTASUN SISTEMA BAT  
OSATZEN DUTEN PIEZA GUZTIAK.

ZURE MODURA EGITEN DUGU, ZURE BEHAR ETA  
LEHENTASUNETARA EGOKITZEN GARA, MODU  
IRAUNKORREAN, SEGURUAN ETA EROSOAN  
ETORKIZUNEKO HIRI ETA PERTSONENTZAT MUNDU  
OSOAN.

---